

MALINAS'KO ARTXIGOTZAI

MERCIER KARDINALA'K.

"KRISTAUAK JAKIN BEAR DUANA"

LEKUONA'TAR IM. APAIZAK ERDERATIK

Tolosa—1933

Lopez-Mendizabal'enean.

ATV
18.993

H- 17704

R- 39302

A7V
18.993

MALINAS'ko ARTXIGOTZAI

MERCIER KARDINAL'AK

"KRISTAUAK JAKIN BEAR DUANA"

Lekuona'tar Im. Apaizak

erderatik.



Tolosa—1933—Lopez-Mendizabal'enean.

Nihil obstat:

Censor

J. M. de Barandiaran.

Imprimatur:

Victoriæ, 21 februarii 1933.

Dr. Justus de Echeguren

Vicarius Generalis.



KRISTAUAK JAKIN BEAR DUANA.

Senide maite-maiteak:

1.—Ez du iñortxok ere bere *anima zeruratzea* baño egiteko aundiagorik.

2.—Ez genduke il nai; bañan ala ere *ilko gera*.

Bai, nere senideak, ilko gera; eta ez dakigu noiz: emendik ogei urtera, bigar, ala gaur bertan. Auxe besterik esateko ez dakigu, etoñiko dala egun bat eta egun artan antxe joan bearko duala bakoitzak mundu ontatik bestera.

3.—Zer izango da orduan guretzat? Betiko zoriondun izango ote-gera ala betiko zorigaiztoko?—Galdekizun onen aldean gañerako guztiak ezer gutxi dira, edo obeto esateko ezer-ez.

Galdekizun onen erantzuna, beñiz, bakoitzak berak nai duana izango da. Zuen etorkizuna, zuen zeuroen eskuetan dago.

Esan zigun garbi asko Jesukristo'k berak: “Etoñiko da egun bat eta egun artan antxe esnatuko ditu Jainkoaren Semeak ildegietan datzaten guztiak. Eta orduantxe piztuko dira ildakoak. Zuzen bizi izan ziranak,

bizitza zorientsurako piztuko dira; eta okeferian bizi izan ziranak, betiko nekeetarako, betiko zigorkadarako” (Joan V-28).

Zer egingo degu, bada guk, zerura joateko?

Noizean bein iru gauza oietxek gogora ekañi: *Zer sinistu bear degun eta zer egin bear degun zerua iristeko; eta zer bitarteko dauzkagun ofetarako.*

LENENGO ZATIA.

Zerua iristeko sinistu bear deguna.

4.—Jaungoikoak *azaldu* dizkigun egi guztiak sinistu bear ditugu: Jaungoikoak gizadiari Liburu Doneen bitartez eta Esakiaren bitartez adierazi dizkion eta Elizari gure sinispenerako eman dizkion egi guzti-guztiak sinistu bear ditugu, zerua iristeko.

5.—Liburu edo Idazti Doneetan *Jaungoikoaren itza* dago, eta Espiritu edo *Gogo Doneak Idazti-egi-leai esan zien* bezela-bezelaxe dago gañera. Idazti oietatik batzuek, Jesukristo baño lenagokoak dira eta “Lege Zafá” deritzaie; besteak Jesukristo’z gerokoak dira eta “Lege Beñia” deritzaie.

6.—Idazti Doneez gañera Jaungoikoaren itza edo azalpena *Esakian* ere ba’dago. Esakia, *itzez-itz*, idatzi gabe gurasoengandik datořena da. Esakian dagona ere Jesukristo’k eta Apostoloak azaldu zuten, bañan ez idatziz, itzez baizik; itz oiek Elizak jaso zituan orduan, eta Elizak erakusten dizkigu orain guri.

7.—Idazti Doneetan eta Esakian dagon guztiari *Si-*

nismen-Gordairua deritzaio; eta gordairu au bear bezela zaitzeko Jesukristo'k berak, alegin aundiz *lagunarte ikusgafi bat* ezañi zuan. Eliza da lagunarte au, eta berak du sinismen-gordairua bear bezela zaitzeko ta sinispenki guztiak okefik gabe erakusteko egin-kizuna.

8.—*Gotzai* edo *Obispoak*, *Apostoloen oñordekoak* dira; eta Eñoma'ko Aita, befiz, Apostolo guztien buruzan *Pedro Donearen oñordekoa*. Gotzaiak Eñoma'ko Aita buru dutela dira *Elizako erakusleak*; eta kristau eliztar'guztiak—Bataio donearen bitartez Elizako bazkide diran kristau guztiak — pekatu astunaren eta inpernuko nekearen azpian, Eñoma'ko Aitak eta Elizako Gotzaiak arekin batean sinisteko erakusten dutena sinistera beartuak daude.

9.—Jaungoikoak Elizari agindu dion laguntza berezi baten bitartez, *Jaungoikoak azaldutako egi-sorta ber-bera* sinistu izan degu beti *Apostoloengandik asit*a gaur arte, Elizaren seme *guzti-guztiok*, eta egi oietzek dira bere *done* edo *santutasunaren* oñañi.

10.—Zoazte, nere senide maiteok, zoazte lur-zabal guztik zear, eta, Eliza Eñomatañen *batasun, guztientasun, apostolotasun* eta *donetasuna* ikusi ta bereala igeñiko dezute bera bakañik dala Jesukristo'k gizonentzat ezañitako Eliza, eta bereala ikusiko dezute ez dirala berdin zugatz lerden au, ta siniste-austeak eta batasun-austeak bere geñitik autsi ta eraman dituan adañak.

Bi mila urte ba'daramazki Eliza katolikoak, eta beti

gaiztoen erasopean bizi izan da: odolezko erasopean ez danean, ixilkako erasopean; beti siniste-ausle eta batasun-ausleen erasopean; beti bere semeen okeferi ta zeinbait bere buruzaien itzal-une-arte; ta ala ere bi mila urtean iraun..... Ez noski *jaungoikozkoa* izan ez balitz; ez noski Jaungoikoak sortua izan ez balitz. Ortan du ezagun. Gizaldiak ba'dijoaz; gizarteak zartzen dira; gizarte-alderdiak apurtzen dira; eñiak, eñidiak, eñialdeak eta laterñiak erortzen dira; eñege-etxeak amaitzen dira; eñi ta endak galtzen dira..... makiña bat olako ikusi du Eliza Eñomatañak bere aldamenean; bañan berak guzti oien artean beti bizirik dirau, beti lengoxea, *beti bera*.

Erakutsaldi au asi degunean, *zer sinistu bear degun* galdetu degu. *Kredoan* daukagu sinistu bear degun guztia aundizka. Esan dezagun bada guztiok batean, garbi ta gerto.

(Altxa bitez orain entzule danak eta Iztegi Donera begira esan bezate apaizarekin batean Sinismen-ageria).

KREDOA.

Sinisten det Jaungoiko Aita alguztidun, zeru-luñen egilea *, ta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna*: Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birjiñagandik jaio zana *, Pontzio Pilato'ren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ñla ta obiratua izan zana *; inpernuetara jetxi ta irugañen egunean ñlen artetik piztu zana *, zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldean eseririk dagona *: andik biziak eta

ilak epaitzera etofiko dana *. Sinisten det Espiritu Santua *; Eliza Santu, Katolikua; Santuen alkartasuna *; pekatuen barkapena *; aragiaren piztuera *; betiko bizitza *. Amen.

11.—Sinismen-gordairuan zegon egiren bat, Elizak, noizpaiten buruan aintzakotzat erabakitzen duanean, egi ofi *dogma* esaten zaio. *Dogma* edo erakuski oieta-tik bat bakarik ukatzen duana, siniste-auslea, erejea da.

Olaxe erabaki zuan Elizak joan dan gizaldiko 1854'gn. Abendua'ren 8'an *dogmakiro* Andre Maria'ren Sortze garbi-garbia; eta 1870'gnean, Batikano'ko Elizbatzar Nagusian, Eroma'ko Aitaren utsezintasuna. Aitor ditzagun guk ere *erakuski* bi oiek emen:

Sinisten det, beste inñori egin ez zaion esker bereziz, Jaungoikoak bere Ama Andre Maria Birjiña, amaren sabelean sortu zan une ber-beretik, jatofizko pekatu-kutsurik gabe zaitu zuala: sinisten det, bai, nik, aren sortzea garbi-garbia izan zala.

Sinisten det baita, bere erakusteko eskubide guztiaz ta Eliza guztiari itz egiñaz, egiren bat Jaungoikoak esantzat erabakitzen duanean, Eromako Aita utseziña dala; sinisten det, bai, nik, olakoetan Eromako Aita ezin oker egon ditekela, ta beti zuzen daga.

BIGAÑEN ZATIA.

Zerua iristeko egin bear deguna.

Ezin izan diteke naikoa gizonarentzat, egia jakitea; egiaren arauz egin bear ditu gañera bere egiteko guztiak.

12.—*Goimaitasuna* degu kristau-bizitzaren *oñafia*: Jaungoikoa gauza guztiak baño maiteago izan eta aren maiteagatik lagun urkoa ere geuroen buruak bezela maite izatea: orixe da kristau-bizitzaren oñafia. “Maitetasuna da Jaungoikoaren agindu nagusia”—zion Jesukristo’k—; “Maitetasunean dago Jaungoikoaren Lege guztia”—zion befiz Paulo Doneak.

Alaxen da. Bañan egiaz ta ziñez maite izatea, ez da beti maite-leloetan aritzea, ez eta negar-malko batzuek ixurtzea ere; maite izatea, maitearentzat lanean jardutea da. *Jaungoikoa maite izatea*, Arek nai duana egitea da, *Jaungoikoaren naiera egotea*.

13.—Jaungoikoaren naia zein dan, *bañuak* esaten digu askotan; biotzeko bañunbean *kontzientziak* esaten digu zer dan pekatu ta zer ez, zer dan eginkizun ta zer ez. Beraz, bañunbeak agintzen duana egin beafean dago gizaki guztia.

14.—*Jaungoikoaren itzak eta Elizak* ere orixe bera esaten dio gizonari, zer egin bear duan ta zer ez; bañunbean askotan ilun ta nastu-antzean agintzen duana bera agintzen dute *Jaungoikoaren Legeko amar Aginduak* eta *Elizaren bostak*; bañan argiago, garbia-go ta berezikiago. Esan ditzagun guztiok batean *Jaungoikoaren Legeko Amar Aginduak* eta *Elizaren bostak*:

Jaungoikoaren Legeko aginduak amar oek dira:
Lenengoa, Jaungoikoa maiteen izatea;
Bigafena, Jaungoikoaren izena alpefik ez aotan artzea.

Irugaíena, jai-egunak jai egitea;
Laugaíena, gurasoak aintzat eukitzea;
Boskaíena, iñor ez iltzea;
Seigaíena, aragikeririk ez egitea;
Zazpigaíena, ez ostutzea;
Zortzigaíena, gezuñezko testigotzarik ez egin eta ge-
zuñik ez esatea;
Bederatzigaíena, besteren senar edo emazterik ez nai
izatea;
Amargaíena, oker-bidez besteren ondasunik ez nai
izatea;
Amar agindu oek bitan biltzen dira: Jaungoikoa beste
ezer baño maiteago ta gure lagun urkoa geren
buruak bezela maite izatea. Amen.

Ama Eliza Donearen aginduak bost dira:

Lenengoa, igande ta jai-egunetan Meza osoa en-
tzutea;
Bigaíena, aitorketa, urtean bein gutxienez egitea,
ta oñezaz gañera iltzeko ańiskuan arkitzean, eta jau-
nartu baño len, baldin oben astunean bagaude;
Irugaíena, Pazko-aldian gutxienez, jaunartzea;
Laugaíena, Ama Eliza Doneak agintzen duanetan
aragi-uzte ta barau egitea;
Bosgaíena, oi danez, amaíenak eta lenenkariak
Elizari ematea.

15.—Maite degu Jaungoikoa: ta izaki guztietan one-
na ta ontasun mugarik gabea bezela maite degu; mai-
te degu gizadia ere: Jaungoikoarena bait-da gizadia

ere. Gizadia, gu geurok gera, ta gutaz besteko gizon guztiak. Beraz gure goimaitasuna iru bidetatik dabil bere ibilian: batetik Jaungoikoarengana dijoa, lagun urkoarengana bestetik, eta irugañenetik gu geuroengana.

a) Maitetasunak, batasunera darama beti. *Jaungoikoarekiko batasuna*, zuzen-zuzenean *jaungoikozko iru onbideen* bitartez egiten da. Onbide oietan lenengoa *sinismena* da; sinismenez sinisten bait-degu Jaungoikoak esan eta Elizak aintzakotzat erakusten digun guztia. Bigaena, *itxaromena*; itxoromenez itxaro bait-ditugu uste osoz Jaungoikoaren agindu guztiak. Iru-gaena, *goimaitasuna*; goimaitasunez batutzen bait-gera gure gogoaren almen guziez Jaungoikoarekin.

Egite okeñen baten bidez Jaungoikoa asañerazten bait-degu, gure gogo damutuak Jaungoikoari aitortzen dion damua ta ez geiago okeñik egiteko asmo sendoa ere, goimaitasuna da, ta goimaitasun onen bidez beñiz ere Jaungoikoarekin bat egiñik gelditzen gera. Maitetasun au "*Jesukristo nere Jauna*" esanaz, *Maite-damutoitza* esanaz aitortzen diogu Jaungoikoari.

b) Gizaki guztiok alkañen senideak gera. Senidetasun au, bi esakun zar oietan dago ederki sarturik: "Ez dezaiozula iñori egin, iñork zuri egiterik nai etzendukeanik". "Egiozu besteri, bestek zuri egitea nai zendukeana."

d) Nork bere burua berez danagatik maite izatea, berekoikeria da. *Bere burua, zuzen ta kristaukiro*

maite duanak, bere griñai gogor egin bear die. Yoan Apostolo Doneak dionez iru dira griña oek: *aragikeria*, *diruzalekeria* ta *afokeria*.

Beti ta beti griña oiekin bufuka bizi bear degu, goimaitasunak gugan agintzea nai ba-degu. Izan gaitezen neufikoak, izan gaitezen garbiak; maita dezagun lana, naiz esku-lana, naiz buru-lana; izan gaitezen esku-zabalak. Gofoto deiogun ordikeriari, aragikeriari, joku-zalekeriari, zabarkeriari, nagikeriari ta besteren lanarekin aberastu naiari. Izan gaitezen apalak, bizi gaitezen pozik Jaungoikoaren legepean, poztu gaitezen lagun urkoaren osasun, izate on ta algo bikañez. Bere burua orla maite duanak, bere buruaz gañera Jaungoikoa ta lagun urkoa ere maite ditu.

16.—Jaungoikoaren Legeko amar aginduok eta Elizaren bostak aundizka bezela ezartzen diguten goimaitasun-lege nagusiaz gañera, ba'ditu gizonak bere bizi-bidetik datozkion beste eginkizun batzuek ere: *bizi-bideko eginkizunak elegia*.

Lenen-lenengo gizartea, etxea da. Ezkontzak bakar-bakarik ematen du, munduan bizia sortzeko eskubide edera. Ortaraxeko da izan ere ezkontza: Ezkontza ez da gorputzari atsegin-emateko. Ezkontza, lokafia da senar-emazteen gorputz eta gogo-lokafi autsi-ezindakoa. Eta bakoitzaren gogo-izaera obetzen eta kristausendia sortzen alkañi laguntzeko da lokafi ori. Eta pekatu astunaren azpian galazia daukate, naiz senafak naiz emazteak, bizia sortzeko Jaungoikoak ipiñi zuan legeari bere bideak okertzea.

Ezkonduak, alkañentzat dira, eta leialtasuna, maitetasuna ta laguntza zor diote alkafi. Emazteak senařaren mendean egon bear du; bañan ez da senařaren neskame, lagun ta ezkontide baizik.

Gurasoak, maitetasuna ta eziera ona zor diote beren umeai.

Umeak, begirapena ta mendekotasuna, ta bere garaian laguntza ere bai, zor diete gurasoai.

Nagusi ta langileen artean, alde batetik zuzentasuna, berdintasuna ta biotz-ona bear da; ta bestetik begirapena, leialtasun ta lanerako zalea.

Eřiko agintari ta mendekoen artean, alde batetik zuzentasuna ta maitetasuna eta Jaungoikoaren Legearenaganako itzal eta begirapena bear da; eta bestetik mendekotasuna ta biotz-atxikitasuna: itz batean aber-tzaletasuna.

Apaizak beren eliztařai, erakutsia zor diete ta aien animen onerako alegiñean saiatzea; *eliztařak,* beřiz, begirapena, mendekotasuna ta maitetasuna zor diete beren apaizai.

Kristau ona, eliztar ona izan oi da; kristau ona an izango da zintzo elizkizunetan; beti gertu egongo da bere Elizako Lantegiai ta elizkide guziai laguntzeko; beste ofenbeste egin oi bait-du eřitar on batek ere bere eřiarekin eta bere eřitařekin: guztion onerako ta txukuntasunerako alegiñak egin eta zeregin ortan gogor saiatu.

Eta, izan ere, kristau on eta zintzoak ba'daki bere eřiko Elizaren eta bere Eři-apaizaren bitartez Eliz-ba-

futiarekin eta bere Gotzaiarekin bat egiñik dagola; eta Gotzaiaren bitartez, beriz, Eroma'ko Aitarekin; eta aizkenik Santuen alkartasunaren bitartez lurzabal guztiko kristaudiarekin.

Erakutsaldi au bukatzeko esan ditzagun guztiok batean ta zutik, sinispen—, itxaropen—, goimaitasun— ta maite-damuzko otoitzak.

Sinispen-otoitza.

Nere Jaungoikoa! Egi berbera zera Zu ta iñolaz ere gezurik ezin esan dezakezu. Sinisten det zin-zinetan Zuk erakutsi diguzun eta Elizak sinisteko agintzen digun guztia. Sinispen onetan nai det bizi ta il, Jauna.

Itxaropen-otoitza.

Nere Jaungoikoa! On utsa ta guzialduna zera eta zure itzean beti leiala. Itxaro det uste osoz, emango didazula, Jesukristo'ren irabazkien bitartez, betiko bizitza eta ura irixteko bear dedan guztia. Itxaropen onetan nai det bizi ta il, Jauna.

Maitasun-otoitza.

Nere Jaungoikoa! On eta maitagafi utsa zera. Maite zaitut, Jauna. Nere biotz, al ta indar guztiaz maite zaitut, eta gauza guztiak baño maiteago; maite det baita Zugatik nere burua bezela nere lagun urkoa ere. Goi-maitetasun onetantxe nai det bizi ta il, Jauna.

Damu-otoitza.

Nere Jaungoikoa! Damu det zure Jaungoikozko aunditasuna ta zure ontasun mugarik gabea iraindu ta naigabetua; goñoto ditut zure maitez nere pekatu ta gaizki guztiak; ba'det asmo, Jauna, guzti-guztiak aitortzeko ta geiago ez olakorik egiteko; naiago det il, beñiz zu naigabetu baño.

IRUGAÑEN ZATIA.

Zerurako bitartekoak.

17.—Sinistu *bear* ditu gizonak Jaungoikoak erakutsitako egiak; maite *bear du* goimaitasunez; bete *bear ditu* Jaungoikoaren Legeko ta Elizaren aginduak.

Egin *bear du* guzti ori; bañan egin *al dezake?* bai al-du ofetarako algorik, indañoik, laguntzarik?

Berez ez dezake; berez ez du ofetarako indañoik. Bañan Jaungoikoak ipiñi du gizonaren eskuetan berez ez dagokion zerurako bitarteko edo laguntza berezi bat, goi-laguntza bat: *grazi* edo *eskar donetzalea*.

Zer da, beraz, *grazi* edo *eskar donetzale* ori? Edo, argiago itz egiteko, nola santutzen du, nola donetzen du gure gogo edo anima eskar donetzale ofek?

Eskar donetzale ofek, lenengo, gizonari pekatu guztiak, naiz *jatoñizkoa* naiz *gogozkoak*, kendu, eta, ofetaz gañera bañu guztia beñiturik uzten dio, eta jartzen dio gañera gogo edo animan animarekin bat egin-da

zeruko malaraño iristarazten dion jaungoikozko egokitasun eta berâtasun berezi bat, eta egokitasun onen bitartez gizona Jaungoikoaren adizkide ta zeruko jabe-gai egiñik gelditzen da.

Jaungoikoaren eskar donetzale au gabe gizonak egin dezake jatofiz on dan zeinbait gauza; bañan iñolaz ere ez dezake zerurako on danik ezertxo ere egin.

18.—Eskar donetzale au Sakramentuen bidez ematen dio Jaungoikoak gizonari. Sakramentuak, ikusi ta ikuitzen diran ezaugarri batzuek dira, bañan, Jaungoikoak ala nairik, ikusi ta ikuitzen ez dan goi-eskafa ere eman oi diote gizonari.

Zazpi dira Sakramentuak, zazpi dira Jaungoiko gurre Jaunak gizonaren bañuan eskar donetzalea sortu, azi ta beritzeko ezarri zituan bideak: Bataioa, Sendotza, Eukaristia, Aitortza, Azken-Igortza, Apaizgintza ta Ezkontza.

Bataioak ematen digun eskañak, pekatu guziak eta pekatuaren zoñak kentzen dizkigu; ta Jaungoikoaren eta Elizaren ume egiten gaitu gañera; eta gugan bizitza beñi bat sortzen du—Bataioaren bitartez *asi*, eta sinispenaren, itxaropenaren eta goimaitasun-egintzaen ta beste kristau-onbideen bitartez *azi*, eta aizkenik zeruan Jaungoikoa laztanduaz betetzen dan bizitza beñi bat sortzen du gugan.—

Kristau-bizitza sendotu egiten du, beñiz, *Sendotzak*.

Eukaristiak, beñiz, goi-bizitza ori bazkatu, janaritu ta azkartu.

Aitortzak, beñiz, goi-bizitza ori birsortu ta beñitu, pekatu astunaren bitartez galdu ba-degu.

Azken-igurtzak, beñiz, azkenetako bufukarako indartu.

Apaizgintzak, beñiz, Sakramentu oiek emanaz, kristau-bizitza zabaltzeko eskubidedun apaizak eta apaizkiak egiten ditu.

Ezkontzaren bitartez, aizkenik, ezkonduak iristen dute ta alkañi ematen diote, batak besteari laguntzeko ta umeak zerurako azitzeko eskubidea ta Jaungoikoaren laguntza.

19.—Eta Sakramentu oiek guretzako ipiñiaz egin digun mesedea oraindik aundiagoa izan dedin, Sakramentuen eskar ori *Sakramentuak berak berez* ematea nai izan du, Jaungoikoak, ez Sakramentuaren emaleak duan santutasunez; Sakramentuak berak berez, naiz ta Sakramentu-emalea pekataria izan.

Nere senide maiteak: ez degu iñoiz ere bear bezela eskertuko Jaungoikoaren guganako gogo ona; ematerik etzegokigula, obeto esateko, ez ematea zegokigularik ere, Berak gogo bete-betetz eman digu graziazko edo goi-eskañezko bizitza. Ia alegin guztiaz saiatzen geran gu ere bizitza eder ori pekatuaren bitartez ez galtzen.

20.—Beste bi bitarteko ere ba'ditugu zeruko eskaña iristeko: *otoitza* ta *egite onak*; bañan biak *berez ez*, baizik gu *geuroen egokitasunez* iristen digute eskar zerutafa.

a) Otoitza da Jaungoikoak ala nairik, gu mesede guztiak iristeko degun biderik erosoena: dirala mesede zerutañak, dirala lufekoak, guztiak, bañan batez ere Sakramentuak bear bezela artzeko ta aien bidez laguntza ugariak iristeko grazi edo eskaña. «Eska zazute ta emango zaizute—esan zigun Jaunak—;saiatu ta arkituko dezute; jo atea ta irikiko dizute. Eskatzen duanak antxe artzen du; eta saiatzen danak antxe arkitzen du; eta atea jotzen duanari zabaltzen zaio» (Luk. XI, 9-10).

b) *Egite onak* ere asko lagundu dezaiguteke zerurako bidean; egite onak oso dira egokiak Jaungoikoaren biotza bere laguntzak eman ditzakigun ukitzeko, baita gure biotzaz Jaungoikoa maite dezagun ukitzeko ere. Gañera gure egite onik txikienak ere oso efex biurtu ditezke goimaitasunezko egintza.

Iru gauzetarako batez ere egin bear degu otoitz: Jaungoikoa *goratzeko*; egindako mesedeakgatik *eskeñak emateko*; gure pekatu ta gaizki guztien *barkapena* eskatzeko. Otoitz egin bear degu, baita, naiz geuroentzat naiz besterentzat Jaungoikoaren laguntzak *eskatzeko*.

Beste otoitz guztien artean ba'da bat bereziki edeña: Jesukristo'k berak erakutsia da, ta *Aita gurea* du izena.

Zutitu gaitezen eta esan dezagun guztiok batean biotz-biotzetik. *Aita gurea* bukatzean esan bear degu, baita, *Agur Maria* ere. Andre Maria bait-degu gure

otoitzak eta eskariak Jaungoikoarengana eltzeko biderik eřazena.

AITA GUREA.

Aita gurea, zeruetan zaudena *: santifikatua izan bedi zure izena *: betor gugana zure eřeinua *: egin bedi zure borondatea zeruan bezela lufean ere*. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia *: barka zazkiguzu gure zofak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela *: ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen *, baizikan libra gaitzazu gaitzetik *. Amen.

AGUR MARIA.

Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zurekin; bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, eřegutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan. Amen.

Nere senide maite-maiteak: Lenengo zatian, zer sinistu bear degun erakutsi dizutet; Bigařenean, zein eginkizun bete bear ditugun; Irugařenean, nolako bi-tartekoak ditugun eginkizun oiek betetzeko ta oiek be-teaz geren buruak donetu ta betiko zerua iristeko; ontaraxeko bait-gaude mundu onetan ta ez bestetarako. Esan dezagun orain beste zerbaitxo ere, esandakoaren osagafi bezela, artu bear ditugun Sakramentuetaz.

21.—Beaía datofenean edozeñek bataiatu dezake. On izango da, beraz, *nola bataiatzen* dan jakitea. Ur garbia artu bear da lenengo, ta gero, umeari *burutik bera ura ixuriaz batean* itz oietxek garbi-garbi esan: «*Nik bataiatzen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.*»

22.—Bataiatuzkero egindako pekatuak barkatzeko da Aitortza deritzan Sakramentua. *Aitortu* egin bear dira ofetarako: nork berak dakizkian bezela, naste ta gezuñik gabe aitortu; gaizki egiñaren *damu* izan bear da gañera, Jaungoikoa naigabetua *damu* izan; eta aizenik ez geiago gaizkirik egiteko *asmo* sendoa artu.

23.—Anima edo gogoa sendatzeko, ta gorputza ere bai on bada, ipiñi zuan Jaungoikoak *Azken-igurtza*. Beraz ez da egon bear eriotza etoñi zai *Azken-igurtza* artzeko. Gaxoaren gurasoak, sendatzañeak, aideak, ta bear ba-da baita auzoak ere, ardura artu bear luteke, gaxoari *Elizakoak* ezaguera ona daukan artean eragiteko, eta ez ezaguera galdu-ta gero; ezaguera osotan artzen dituanak, sinismen ta goimaitasunezko egin-tzak egiñaz askotaz ongañikiroago egiten bai-ditu *Elizakoak*.

24.—Ezkontza, Jesukristo baño lenagokoa da; bañan Jesukristo'k egin zuan Sakramentu; Jesukristo'z geroztiko kristauen arteko Ezkontza guztiak, Sakramentu dira. Bañan benetako Ezkontza izan dedin, bi testigoren aúfean egin bear da; ta, al bal-din bada, eñiko Apaiz Nagusiaren aúfean; ta ezin ba-da, aren ordeko baten aúfean.

Ezkontzako lokera, *ez da austen* bi ezkonduetatik bat il artean; bat il arte ez diteke bestea beñero ezkondu beste iñorekin.

Elizak ez du ondo ikusten, gañera, *ezkontza naturik*, kristau katolikoak, katolikoa ez danarekin egiten duan ezkontzarik; are gutxiago, kristau katolikoak, baitaiatu gabeko batekin egiten duanik.

BUKAERA.

Esan dizutedan guztia Jesukristo'rengandik datorkigu; eta dan ofek, Jesukristo'rengana eramán bear gaitu.

25.—Zerura joateko *sinistu bear ditugun egiak*, Berak agertu zituan, eta Elizak erakusten dizkigu guk sinistu ditzagun.

Bete bear ditugun aginduak ere Jesukristo'rengandik datozkigu, eta guztien laburgo edo sorta dan *goimaitasun-agindua edo legea*, berak zabaldu zuan munduan.

Jaungoikoa ta lagun urkoa maite izateko indaía ematen digun *laguntza* ere, Berak irabazi zigun gurutzeko eriotzaz.

Sakramentuak ere, berak ipiñiak ditugu.

Gure *otoitzak* ere, duten algo ta indar guztia Jesus'en bitartekotasunez dute; ofetxegatik bukatzen ditu Elizak bere otoitz guztiak, arako itz aiekin: *Jaungoikoa izanik, Zurekin batean ta Espiritu Donearen batasunean agintari bizi dan zure seme Jesukristo gure Jaunaren izenean. Amen.*

26.—*Agintari bizi da*, bai, Jesukristo gure Jauna *agintari ta elege zeruetan*, eta gure alde otoizketan beti.

Agintari bizi da baita gure biotzetan ere. Gure biotzak pekatu-kutsurik gabe garbi dirauten artean ementxe bizi da bere grazi edo eskañaren bitartez, eta bere maitasunaren bitartez ementxe agintzen du gure biotzetan.

Agintari bizi da Jesus eukaristian, Aldarean. Mezerdiko garaian, apaizak esaten dituan itz doneen bitartez ortxe gelditzen da, gorputz eta anima, Jaungoiko ta gizon, egi-egiazki ogi-ardoen eraskipean. Orduantxe *beritzen du odolik gabe*, antziña bere odoletan gizadia gaizkatzeko egin zuan *Oparia*.

27.—Ortxe ematen digu gañera Aldareko Mai Done oñetan Jesus'ek bere burua gure animen janari, goibizitza gugan, gero ta geiago indartu dedin. Ortxe dago gañera beti ta beti Aldareko Kutxatilatxoan; eta ortxetik joaten da baita gaxo dagonarengana ere, onek, bere zerurako bidean, Jauna bera *Bide-janari* izan dezan.

28.—Gogoan euki ezazute beti, nere senide maiteok, *pekatu astunaren azpian bearturik zaudetela* igande ta jai egunetan *Meza entzutera*. Amar dira Igandeez gañera Jai aundi oiek: Urte Beñi (Ilbeltza-1.), Iru Elege (Ilbeltza-6.), Jose Donea (Epaila-19.), Azentzio, Korpus Kristi, Pedro ta Paulo Doneak (Garagañila-29.), Abuztuko Andre Mari (Dagonila, 15.), Done Guzti (Azaroa-1.), Abenduko Andre Mari (Abendua 8.), ta

Egubefi (Abendua-25.). Euki gogoan beti, ta ez utsik egin Mezarik, egun otan. (1).

29.—Zoazte gañera al dezuten guztian Eriko Meza Nagusira ere: uraxe da Eriko Apaiz Nagusiak zuentzat, zuen onerako ta zuen etxeko guztien onerako ematen duan Meza. Eta Igande-jaietan inñolaz ezin ba'dezute zoazte astelegunean, edo ta zeurok ezin ba-dezute, bidali itzatzute zuen umeak, berentzat eta zuentzat entzun dezaten.

30.—*Jaunartu ere egin bear dezute pekatu astunaren azpian urtean bein gutxienez*, Pazko-aldian; baitaiatu guztiak daude ontarako beartuak bein ezaguerara eldu ezkerro.

Bañan ori bakañik ez da naikoa; maizago ere egin bear dezute. Jesukristo Gure Jauna eta aren ordeko dagon gure Ama Eliza, *añen ta añen sañitan jaunartzeko* ari zaizkigu.

Oñetarako naikoa dezute pekatu astunik gabe Jaungoikoarekin ondo egotea ta asmo zuzenez joatea.

31.—A! Bazanekite nolakoa dan Jaungoikoaren opakizun au! Bazanekite nor dan, bere aldarera, bere maira, bere etxera, bere egoitzarako deiez dagokizu-

(1) Oiek dira Eliza guztirako jaiak. Bañan zenbait lekutan egun oietatik batzuek barkatuak daude Eñomako Aitaren aginduz. Beste leku batzuetan, ordea, oietaz gañera besteren bat edo beste ere jai egiten da: Gipuzkoan eta Bizkaian, Ignazio Donea; Araban, Prudenziio Donea; Napañoan, Xabier Donea; Iruñan, Saturnino Donea eta guzietan Santiago.

tena! Zeñen laisterka ta arin joango zintzakikeoten, eta zeñen pozkiro ixuriko lukean Berak bere pakea zuen biotz-ba funbeetan eta batasuna etxeko guztien artean, eta zeruko aberastasunak gero ta oparoago zuen animetan!

32.—Bukatzeko, goratu dezagun, nere senide maite-maiteok, gure Jaungoikoa; goratu dezagun gure Salbatzaile Jesukristo. Judas Apostolo donearen itzak esanaz (XIV, 5):

«Pekatuetan kutsutu gabe zuek gordetzeko, eta bere epai-alki-aurrean zuek garbi ta alai aurkezteko esku ta indaia duan Ari; Jesukristo gure Jaunaren bitartez gure animak gaizkatu dituan egiazko Jaungoiko bakañari: aintza, aunditasuna, agintea, ta al eta eskua, orain-da beti.—Amen».

Barau ta aragi-uzteak Buldarik gabe.

Aragi-uzte utseko egunak: Ostiral guztiak.

Aragi-uzte ta barau-egunak: Auste-re-eguna; Garizumako Ostiral ta Larunbatak; Tenporetako Asteazken, Ostiral ta Larunbatak; Pentekoste—, Abuztuko Andre Mari—, Santu Guzti ta Eguarietako Au-re-egunak.

Barau utsekoak: Garizumako gañerako egun guztiak.

Barau ta aragi-uzteak Buldadunentzat.

Aragi-uzte utseko egunak: Pentekoste, Agor ta Abendu'ko Tenporetako Ostiralak.

Aragi-uzte ta barau-egunak: Garizumako zazpi Ostiralak eta Pentekoste—, Abuztuko Andre Mari ta Eguari-au-re-ko egunak (bañan Eguari au-re-koa, tenporaetako larunbatera auferatzen da; bañan ez da ez barau ez aragi-uzte egin bearik, Eguari Astelenean dato-renean).

Barau utsekoak: Garizumako zazpi Asteazken ta Larunbatak.

OARA.—Beartsuak aragi uzte ta barauen eskubideak baka-rik Buldarik gabe irabazten dituzte: Gurutz Buldako es- kubideak iritxi nai badituzte berau artu bear dute.

Ikastola Katolikoan Zabalkunderako

OTOITZA.

Gure Jaun Jesukristo, gizonen ta eñien Erakuslea: Zuk erakutsi zenion zure Elizari umetxoak maitekiro bere altzora erakartzen eta antxe gozo-gozo euki ta zaitzen. Bedeinkatu itzazu zure laguntza zerutañez gure ikastolak, ikasle on guzti oiek Zuri —bidea, egia ta bizitza zeran Jaun maite oñi— jañaituaz, beti gizon gaiztoen erakutsi gezurtietatik uruti ezi ditezen, eta Elizaren aintzagañi ta eñiaren apaingañi azi ondoren, gero aingeruekin batean betiko Aitaren arpegi zoragañia ikustera eltzeko zoriona izan dezaten.

Gizaldi ta gizaldietan, guztien nagusi bizi zeran oñen izenean.—Amen.

(Sac. Pen.'k 1927'gn. Orril. 17'an, 300 eguneko barkamena eta Gotzai jaunak emanak 50 egunekoa: onek berak agindu du Eliz-barruti ontako ikastola katoliko guzietan otoitz au egitea).

Imprimatur.

Victoriæ, 7 Martii 1933.

Dr. Justus de Echeguren

Vicarius Generalis.



Aita Pranziskotarak

A. Lizargarate andrearen gogoz (G. B.) egindako
MISIO DEUNAREN OROIPENA.

Tolosa'n gure Jauna gurutziltzatutako Urte Deuneko
Epaiñan.

1933



0,20